

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Guardiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailtza azpieskalan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako idazkaritza lanpostua betetzea

Guardiako Udaleko idazkaritza-lanpostua, gaikuntza nazionalako toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta dagoena, hutsik geratu da, eta, beraz, funtzionario-eskala horren araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera bete beharko da.

Behin betiko hornitze aldera urteroko lehiaketetan sartzeaz gain, aldi baterako betetzeko bideei dagokienez, 128/2018 Errege Dekretuaren arabera lehentasuna dute, hurrenkera honetan: gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionario baten aldeko behin-behineko izendapenak (49. artikulua), zerbitzu eginkizunak (51. artikulua) eta metaketak (50. artikulua).

Soilik bide horietakoren bat erabiliz bete ezin denean, erabil daitezke beste biak, hain zuzen: prestakuntza tekniko egokia duen udal bereko karrerako funtzionario baten aldeko izendapen akzidentala (52. artikulua); edo A1 azpitaldean sartzeko eskatzen den titulazioa duen bitarteko funtzionario baten izendapena (53. artikulua).

Hori dela eta, izapideak hasi behar dira Guardiako Udaleko idazkaritza lanpostua aldi baterako betetzeko interesa duen eta gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionariorik dagoen egiaztatzeko.

Azaldutako guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa: Guardiako Udaleko idazkaritza lanpostua (hirugarren maila) aldi baterako betetzeko beharra iragartzea, gaikuntza nazionala duten eta interesa duten toki administrazioko funtzionarioek eskabidea udal honetan aurkeztu ahal izan dezaten, 5 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena: gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioa izendatuko da, eta lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiak izango dute lehentasuna. Hori behar bezala egiaztatuko da.

Hirugarrena: hautagai bat baino gehiago aurkeztuz gero, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean merezimendu orokor gisa puntuaziorik handiena duena proposatuko da izendapenera.

Laugarrena: hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Guardiako Udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio, hurrenez hurren, aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, bost egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Bosgarrena: hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Seigarrena: Arabako Foru Aldundiari aukeratutako hautagaiaren aldeko izendapena proposatzea.

Zazpigarrena: udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Zortzigarrena: lanpostuaren ezaugarriak.
Izena: idazkaria.
Eskala: gaikuntza nazionala.
Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaitza.
Taldea: A1/A2.
Destino-osagarria: 30.
Berariazko osagarria: 22.482,40 euro.
Hizkuntza eskakizuna: 3.
Derrigortasun data: 2021ko irailaren 8a.

Laguardia, 2024ko apirilaren 25a
Alkatea
RAUL GARCÍA EZQUERRO

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:.....; jakinarazpenetarako helbidea:.....; telefono zenbakia:.....; Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, azpieskalakoa; gaur egun..... lanpostuan, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran -lankidetzat lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik-).

ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Guardiako Udaleko idazkari lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betetz, hau

ESKATZEN DUT

Guardiako Udaleko idazkari lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek eransten dira:

- NANaren fotokopia.
- Gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko dokumentazioa.
- Lanpostua zereginen pilaketagatik eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 2024koaren(a)

Sinadura